



Parrokixako katekistak

Gure ume-denporan eliziak eta erlijioak izugarritzko pixua euki euen. Gerra osteko urte hareik oso pietistak izan ziran eta giro haretan kristau dotriña ondo ikastiari inportantzia haundixa emuten xakon. Eskolan ez ezik, elizan be jarduten geben horretan. Kurtso osuan zihar astero faten giñan maristetatik parrokixara horretaraxe, eguazten arratsaldetan oso oker ezpanago. Nahiz eta herriko auzo batzuetan dotriña euskeraz erakutsi, kalian erderaz ikasten geben. Abade batzuk ziran arduradunak, baiña baita emakume katekista pillia be.

Gaurko argazkixan orain dala **hirurogei urte pasatzoko berrogeitaka emakume katekista** agiri dira, parrokixako bi abaderekin batera. Gazte samarrak dira gehixenak, baina helduak be badagoz. Batzuk luzaruan ibilli ziran lan horreittan: **Bixi Ziaurriz, Domingita Mokoroa** edota **Andina Arrazola** ezagunak, esaterako. Beste batzuk ez hainbeste. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek ditzuzue:

Bosgarren illaran goixenian: Juanita Mugartza; Lolita Guinea; Susana Mendizabal; Maria Anjeles Zulueta; Pilarin Arregi; Margarita Madina; Rosarito Zarraoa; Ana Mari Arregi; Anjelita Zubiagirre; Rosarito Ugarte; Maria Anjeles Guridi [?]; eta Maria Anjeles Urteaga.

Laugarren illaran: Rosario Mugartza; Tere Enparantza; Beatriz Lizaur; Andina Arrazola; Mari Elen Otorora; Ana Mari Ugarte; Maribel Gorbea; Maria Luisa Urtzelai; honen atzian Karmen Ituarte; Arantxa Arrazola; eta Ines Mendizabal.

Hirugarren illaran: Maria Luisa Aranburu; Ana Mari Martinez de Iturrate; Bixi Ziaurriz; Domingita Mokoroa; Migel Etxabeguren, parroko jauna; Juan Mujika abadia, katekisten arduraduna; Ana Mari Anduaga; Maribi Lubian; Eli Otorora; eta Milagros Arregi.

Laugarren illaran belauniko: Maria Pilar Abaunz; Ana Mari Ruiz de Arbulo; Felisa Etxeberria; Satur Murga; Kontxi Igartua; eta Mari Tere Uranga.

Barrenian, lurrian jarritta: Maritxu Arregi; Maria Luisa Lizaur; Karmen Lizaur; Isabel Mugartza; Sabina Ibarrondo; Milagros Guridi; eta Tere Letamendi. Albueta neskaitillatuak eztittugu ezagutu.

Fotografia 1955 edo 1956kua izan leike, eta San Martingo zelaixan atarata egongo da, uda hasieran, kurtsuaren akaberan, ume eta guzti egitten zan jaixan.

J. E.

Argazkixa Kontxi Igartuak ekarri dosku eta informaziño gehixena berari zor xaugu. Eli Otorarak, Rexu Letamendik eta Fernando Mendigurenek be zalantza batzuk argittu doskue. Milla esker danoiri!